Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

| 2008KO EKAINAREN 26AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 26 DE JUNIO DE 2008. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **B I L D U T A K O A K** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi Jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Iñaki Gamero Delgado (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Josu Ahedo Ruiz (P.P.)
Jorge Grases García (P.P.)
Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)
Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)

Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)
Iñaki Urkiza Arana (E.B.-B.)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
| --- | --- |

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diez horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Alderdi Popularreko Eduardo Andrade jaunak eta Juan Luis Eguiluz jaunak etorri ezin izana zuritu dute.

Excusaron su asistencia los Concejales del grupo Popular Eduardo Andrade y Juan Luis Eguiluz.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**96.- 2008KO MAIATZAREN 3KO BATZAR ARRUNTEKO ETA EKAINAREN 17KO BATZAR BEREZIKO AKTAK ONESTEA.**

**96º.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS ANTERIORES SESIONES ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA CELEBRADAS RESPECTIVAMENTE LOS DÍAS 30 DE MAYO Y 17 DE JUNIO DE 2008.**

Udaltzarrak hauxe erabaki du aho batez:

1.- Getxoko Udal txit argiko Udalbatzak 2008ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkura arrunteko akta onetsi da.

2.- Getxoko Udal txit argiko Udalbatzak 2008ko ekainaren 17an egindako osoko bilkura bereziko akta onetsi da.

La Corporación por unanimidad, acuerda:

1º.- Aprobar el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de mayo de 2008.

2º.- Aprobar el Acta de la anterior sesión extraordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 17 de junio de 2008.

## A L K A T E T Z A

**97.- UHOLDEEI BURUZKO INFORMAZIO BATZORDE BEREZIA SORTZEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Alderdi Popularreko Marisa Arrue andreak hitza hartu eta aditzera eman du bere taldeak Mozioa aurkeztu zuela; bertan, ikerketa-batzorde bat sortzea eskatu zuten, uholdeen ostean, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Berak adierazitakoaren arabera, Osoko Bilkura berezian ere gai hori atera zen, eta Mozioa aurkeztu dute Uholdeen Prebentziorako Batzordea sortzeko; izan ere, euren ustez, batzorde hori beharrezkoa da arazoari aurre egin ahal izateko. Bestalde, ados daude alkatearen proposamenaren edukiarekin, baina ekarpenak egin nahi dituzte, proposamen hori hobetu ahal izateko: 1.- Batzordea astebeteko epean sortzea, eta, horretarako, Alderdi Popularrak batzordeko kideak 24 orduko epean izendatzeko konpromisoa hartzen du. 2.-

## A L C A L D I A

**97º.- CREACIÓN DE UNA COMISIÓN INFORMATIVA ESPECIAL DE INUNDACIONES.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Marisa Arrue para indicar que el grupo Popular presentó una Moción pidiendo una comisión de investigación tras las inundaciones, sin que hayan obtenido ninguna respuesta. Indica también que en el Pleno extraordinario se suscitó esta cuestión, y que han presentado una Moción para la creación de una Comisión de Prevención de Inundaciones, ya que estiman que es necesaria para poder abordar dicha problemática. Manifiestan que están de acuerdo con el contenido de la propuesta del Alcalde, pero que plantean una serie de aportaciones para mejorar la misma que serían: 1.- La constitución de la comisión debería realizarse en el plazo de una semana y para ello el grupo Popular se compromete en 24 horas a nombrar sus representantes. 2.- Que la

Batzordeak ibaia garbitzeko eta saneamendurako premiazko neurriak ezarri ahal izatea, neurri horiek behin-behinekoak izan arren. 3- Gobela ibaian uholdeak gertatzearen zergatien gaineko ikerketa zehatza egitea. 4.- Gobela ibairako proiektu gaurkotua eta integrala idaztea, bertan sortzen ari diren arazoak konpondu ahal izateko. 5.- Uholdeen ostean egindako jarduketa aztertzea, eta hori larrialdiko protokoloekin kontrastatzea, akatsik egon ote den aztertzeko; akatsak egon badira, berriz, beharrezko erabakiak hartzea eta hobekuntzak egitea, berriro halakorik ez gertatzeko. 6.- Batzordeak ohiko informazio-batzorde baten formatu bera edukitzea, eta, bertan, auzotarren presentzia ahalik eta handiena izatea.

comisión pueda determinar medidas urgentes de limpieza del río y saneamiento, aunque sean de carácter provisional. 3.- Que se realice un estudio completo de las razones por las que se producen inundaciones en el río Gobela. 4.- Que se redacte un proyecto actualizado e integral para el río Gobela que solucione los problemas que está ocasionando. 5.- Analizar la actuación realizada tras las inundaciones y su contraste con los protocolos de emergencia para examinar si han existido errores, y en este caso tomar las determinaciones y las mejoras necesarias para que no vuelvan a ocurrir. 6.- Que la comisión tenga el mismo formato que una comisión informativa normal con la máxima presencia de los vecinos.

Alkate jaunak aditzera eman dio seigarren puntua proposamenean jasota dagoela, eta, bosgarren punturi dagokionez, Osoko Bilkura berezian jarduketa guztien gaineko informazioa eman zen, eta bozeramaileei ere informazioa eman zitzaien; halaber, Ogasuneko Informazio Batzordean, Babes Zibileko eta Hiritarren Segurtasuneko arduradunek egindako jarduerei buruzko informazioa eman zuten, gainera, udal-talde guztiei horri buruzko txosten osoa eman zitzaien. Laugarren puntuari dagokionez adierazitakoaren arabera, bere proposamenean Eusko Jaurlaritzak planteaturiko proiektuaren ikerketari buruzko atalean jasota dagoena da. Hirugarren puntuan, bere iritziz, planteamendu orokorregia egiten da, eta Eusko Jaurlaritzak eta udal-teknikariek egingo dute, Gobela ibaiaren gaineko jarduketa-proiektuak zehazteko orduan. Bigarren puntuari lotuta, esan du ekainaren 1etik erabakiak hartzen ari direla, eta

El Sr. Alcalde le indica que el punto sexto está ya recogido en la propuesta, y que respecto al punto quinto se informó en el pleno extraordinario de todas las actuaciones, así como también se informó a los portavoces, y en la Comisión Informativa de Hacienda los responsables de Protección Civil y de Seguridad Ciudadana informaron de las actividades realizadas, así como se les trasladó un dossier completo de todo ello a los diferentes grupos municipales. Respecto al punto cuarto indica que es lo que en su propuesta se recoge en el apartado referido al estudio del proyecto planteado por el Gobierno Vasco. Respecto al punto tercero le parece un planteamiento muy general, y que se realizará necesariamente por el Gobierno Vasco y los técnicos municipales a la hora de definir los proyectos de actuación sobre el Gobela. Respecto al punto segundo indica que desde el 1º de junio se están adoptando decisiones, y que en la comisión informativa que plantea, se

planteatzen den informazio-batzordean informazioa emango dela egindako guztiari eta eztabaidatu ahal izango diren jarduketa-proposamenei buruz. Amaitzeko, esan du lehenengo puntuarekin ados daudela.

informará de todo lo hecho y de las propuestas de actuación que podrán ser objeto de debate. Finaliza manifestando que respecto al punto primero están de acuerdo.

Almansa jaunak dioenez, Alderdi Sozialistak, ekainaren 6an, proposamen bat aurkeztu zion alkateari, ahalik eta lehenen egin beharreko osoko bilkura bateko eguneko gai-zerrendan egindakoari, Euskalmetekiko koordinazio-politikari, SOS Deiak deritzonari, laguntzei eta Gobelaren egoerari buruzko informazioa duen puntu bat sartzeko; halaber, larrialdiko egoeretarako udal-bulegoa sortzea ere planteatu zuten. Osoko Bilkura berezian alkateak egindako guztiaren berri eman zuen, eta Gobela ibaiari loturiko jarduketen eta laguntzen gaineko informazioa ere bai, baina ez zuen ezer zehaztu larrialdietarako udal-bulegoa sortzeko aukerari buruz; proposamenean horri lotutako aukera planteatzen da, eta errebindikatu egiten da, auzokoen partaidetzari buruzko laugarren puntuari dagokionez, ados egongo litzatekeela hauxe eranstearekin: “*eta erabakitzen diren beste batzuk*”. Alderdi Popularraren proposamenari dagokionez, uste du alkateak, gutxienez, informazio-batzordeak Gobela ibaiko premiazko jarduketa-neurriak eman ahal izateari buruzkoak onartu beharko lituzkeela, baita gertaturikoaren zergatien diagnostiko serioa egiteko eta gehiago halakorik ez gertatzeko neurriak hartzeko proposamena ere.

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista el 6 de junio presentó una proposición al Alcalde para incluir en el orden del día de un pleno a celebrarse a la mayor brevedad, un punto acerca de la información sobre lo actuado, la política de coordinación con Euskalmet, SOS Deiak, ayudas, situación del Gobela, y planteaban también la constitución de una oficina municipal para situaciones de emergencia. En el Pleno extraordinario el Alcalde dio cuenta de todo lo actuado, y de las ayudas y de las actuaciones referidas al río Gobela, pero nada concretó sobre la posibilidad de la creación de la oficina municipal para situaciones de emergencia, cuestión que la propuesta sí plantea una alternativa al respecto, y reivindica que respecto al punto cuarto de la participación vecinal, estaría de acuerdo con el añadido de: “*y otras que se consideren*”. Respecto a la propuesta del grupo Popular estima que el Alcalde debiera de recoger al menos las que se refieren a que la comisión informativa pueda dictaminar medidas urgentes de actuación en el río Gobela, aunque sean provisionales, así como la propuesta de realizar un diagnóstico serio sobre las razones de lo ocurrido, y de tomar las determinaciones necesarias para corregirlo.

Alkate jaunak onartu egin du Alderdi Sozialistak proposaturiko gehigarria, azken puntuan sartzeari buruzkoa, eta, Gobela ibaiaren gaineko ikerketari dagokionez, berretsi egin du

El Alcalde admite el añadido que propone el grupo Socialista respecto a la incorporación al último punto y en relación al estudio que solicita sobre el río Gobela, insiste en que viene

proposamenean jasota dagoela eta premiazko neurriak hartzen ari direla, eta batzorde horretan ere proposatuko direla, egin beharrekoari buruzko iritzia eman ahal izateko.

recogido en la propuesta y ratifica que las medidas de urgencia se están adoptando y que se van a proponer también en esa comisión, para que opine acerca de las actuaciones a realizar.

Urkiza jaunak, Ezker Batuaren ordezkaritzat, esan du batzordeak Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren proposamenetan egin behar duela lan; bere iritzian, alkatearen proposamenak, hobetzeko modukoa izan arren, eduki nahikoa dauka Gobela ibaiko egoera konpontzen hasteko; beraz, horren alde egingo dute.

El Sr. Urkiza en nombre de Ezker Batua manifiesta que las propuestas del grupo Socialista y las del grupo Popular son realmente los temas sobre los que tiene que trabajar la comisión, y estima que la propuesta del Alcalde, aunque pueda ser mejorable, tiene un contenido suficiente para iniciar los pasos para resolver la situación del río Gobela, por lo que lo va a apoyar.

Marisa Arruek bere puntuak onartzeko eskatuko dio alkateari; izan ere, Alderdi Popularrak lan-batzordea sortu nahi du, ez informazio-batzordea, Udaletxeko oraingo batzorderik gehienak halakoak baitira; horrexegatik aurkeztu dituzte halako proposamen zehatzak. Euren iritziz, beharrezkoa da, gutxienez, euren proposameneko 2., 3. eta 4. puntuak aintzat hartzea, oinarrizkoak baitira auzokoak nahi duten baterako lana egiteko. Nolanahi ere, alkatearen proposamenak antzeko zerbait jaso ahal du, baina ez hain zehatz; horrenbestez, berretsi egin du adierazitako puntuak jaso behar direla.

Marisa Arrue indica al Alcalde que admita los puntos que plantea, ya que lo que el grupo Popular pretende es una comisión de trabajo, no de información, como son la mayoría de las comisiones actuales del Ayuntamiento, y esa es la razón por la que presentan propuestas muy concretas. Estiman como mínimo necesario que se contemplen los puntos 2, 3 y 4 de su propuesta, ya que son básicos para un trabajo conjunto que es lo que piden los vecinos. En todo caso estima que la propuesta de la Alcaldía puede recoger algo parecido pero de forma más poco precisa por lo que se ratifica en la necesidad de incorporar los puntos indicados.

Alkate jaunak berriro esan du egiturazko arazoa dagoela, hain zuzen ere, Gobela ibaiaren egoera, eta horren ebazpena Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa dela; ikerketa bat egiten ari da, eta, horren ondorioz, Udalera bidaliko den plan bat sortuko da; batzorde horretan, aipaturiko plana aztertuko da, horren gaineko informazioa emateko eta, behar izanez

El Sr. Alcalde insiste en que existe un problema estructural que es la situación del río Gobela, cuya resolución es competencia del Gobierno Vasco, que está realizando un estudio que va a desembocar en un plan que será remitido al Ayuntamiento, y que en esa comisión se analizará dicho plan, a fin de informar el mismo y plantear si fuera necesario los estudios

gero, ikerketa osagarriak, proiektuak eta halakoak planteatzeko. Berak dioenez, ez da entzuteko soilik balio duen informazio-batzordea, bertan (talde guztien parte-hartzearekin) Osoko Bilkuran planteatu beharreko proposamenak erabakiko baitira. Halaber, berak esandakoaren arabera, hain larria ez den beste arazo bat ere badago; hain zuzen ere, udalerriko zona batzuetan (adibidez, Ollarretxe, etab.) euria gogor egiten duenean sortzen dena; informazio-batzordean harturiko neurriak eta udal-ikerketen arabera hartu behar direnak planteatuko dira; batzordeak horien gaineko irizpena emango du. Amaitzeko, esan du Alderdi Popularrak planteatu duena bere proposamenean jasota dagoela.

complementarios, proyectos, etc. necesarios. Indica que no se trata de una comisión informativa de escuchar, sino de una comisión en que con la participación de todos los grupos se dictaminen las propuestas a elevar al Pleno. También indica que existe otro problema no tan grave, que es el que acontece en determinadas zonas del municipio cuando llueve de una manera importante como son en Ollarretxe, etc, y que en la comisión informativa se llegará a plantear las medidas adoptadas y las que se vayan a adoptar en función a los estudios municipales y es sobre las mismas sobre las que la comisión dictaminará. Finaliza indicando que lo que plantea el grupo Popular se encuentra incluido en su propuesta.

Arrue andreak berretsi egin du Alderdi Popularraren ustez beharrezkoa dela berak esandakoa jasotzea; izan ere, bere iritzian, proposamenean jasotakoaren arabera, Uraren Euskal Agentziaren proiektuaren idazkera lehenagoko proposamenetan oinarritzen da, eta ez da azken errealitateari egokituriko proiektu berririk egiten. Bere ustez, era berean, proposamena ez da nahiko argia; hain zuzen ere, alkatearen ustez Alderdi Popularrak planteaturikoa proposamenean jasota badago, ez du ulertzen zergatik onartzen ez duen, agerian baitago bere taldeak planteaturikoak argitu egiten duela proposamena. Azkenik, alkate jaunaren ukapen-jarrera horrek tristatu egiten du, eta susmoak sorrarazten dizkio informazio-batzordean denok batera lan egiteko aukerari buruz.

La Sra. Arrue insiste que el grupo Popular estima necesario la incorporación de lo que indica, ya que cree que tal como viene en la propuesta la redacción del proyecto de la Agencia Vasca del Agua se basa sobre presupuestos anteriores, sin que se realice un proyecto nuevo adaptado a las últimas realidades. Manifiesta así mismo que la propuesta no es suficientemente clara, y que si lo que plantea el grupo Popular estima el Alcalde que está incluido, por qué se resiste a admitirlo, ya que lo que es evidente es que clarifica la propuesta. Finaliza manifestando que esa actitud de rechazo del Alcalde le entristece y le genera sospechas acerca de la posibilidad de trabajar en conjunto en la comisión informativa.

Alkateak dioenez, informazio-batzordeak eskumena dauka Osoko Bilkurara eramateko proposamenak erabakitzeko, eta ez da lan-talde hutsa.

El Alcalde insiste en que se trata de una comisión informativa que tiene competencia para dictaminar las propuestas a elevar al Pleno, y no de un

Helburua, izatez ere, batzorde horretan talde guztien arteko akordioak lortu ahal izatea da, horiek gero Osoko Bilkuran aurkezteko; batzordearen osaketa kontuan hartuta, ezin daiteke esan bertakoak gobernu-taldeak derrigorrez ezarritako akordioak direnik. Amaitzeko, berak dioenez, adostasuna lortzeko, onartu egingo luke Gobela ibiari buruzko ikerketa osoa eta orokorra eta bizi izan diren egoerak Uraren Euskal Agentziak egingo dituen ikerketen artean sartzea; horretarako, atal hau erantsi behar da: "*Eusko Jaurlaritzak Gobela ibaiaren egoeraren diagnostikoari buruzko ikerketa aurkeztu ondoren*".

simple grupo de trabajo. La finalidad es que en esa comisión se pueda llegar a acuerdos entre los grupos para su presentación al Pleno, que teniendo la composición política que tiene no puede plantearse como acuerdos que se impongan por parte del equipo de Gobierno. Finaliza manifestando que en aras de alcanzar un consenso admitiría que el estudio completo y global sobre el río Gobela y las situaciones que se han vivido estén entre los estudios a realizar por la Agencia Vasca del Agua planteando para ello añadir al apartado lo siguiente: "*previa presentación por el Gobierno Vasco del estudio diagnóstico correspondiente sobre la situación del río Gobela*".

Marisa Arruek alkateari esan dio, batzordearen funtzionamendua lehenbailehen hasteko eta talde guztien arteko akordioak bilatzeko, onartu egiten duela proposamena, eta bertan jasotako aldaketen aldeko botoa emango duela, bere taldeak aurkezturiko zehaztapenak zoritxarrez bertan jaso ez arren.

Marisa Arrue indica al Alcalde que en aras a que la comisión empiece a funcionar cuanto antes, y de buscar un acuerdo entre todos los grupos, acepta la propuesta, y votará a favor con las modificaciones incorporadas, aunque lamenta que no se hayan incorporado las concreciones que presentaba su grupo.

Proposamena bozkatu ondoren (eztabaidan jasotako gehigarriekin) Osoko Bilkuran dauden batzarkide guztiek aho batez onetsi dute.

Sometida la propuesta a votación con las incorporaciones que se recogen en el debate, es aprobada por la totalidad de los miembros de la corporación presentes en el Pleno.

Horrenbestez, eta Alkatetzak proposatuta, hauxe erabaki da:

En consecuencia, y a propuesta de la Alcaldía, se acordó por unanimidad:

1.- Uholdeei buruzko Batzorde Informatibo Berezia sortzea.

1º. Crear la Comisión Informativa Especial de Inundaciones.

2.- Batzorde horren xedea ondoko jarduketa hauetan eskumenak dituzten organoei informazioa ematea eta proposamenak egitea izango da:

2º. El objeto de dicha Comisión será, informar y proponer a los órganos competentes actuaciones en los siguientes ámbitos:

a) Gobela ibaiaren Getxoko tartearen

a) Proyecto de Acondicionamiento

gaikuntza hidraulikoaren eta ingurumeneko lehengoratzearen proiektua. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren pentzudan dagoen Uraren Euskal Agentziak (URA) egin du, Eusko Jaurlaritzak Gobela ibaiaren egoeraren diagnostikoari buruzko ikerketa aurkeztu ondoren. Kontrastea eta ezagutza teknikoa, eta Eusko Jaurlaritzarekin ados jartzea horren betearazpenari dagokionez.

hidráulico y recuperación ambiental del río Gobela en Getxo, elaborado por la Agencia Vasca del Agua (URA) dependiente del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, previa presentación por el Gobierno Vasco del estudio diagnóstico correspondiente sobre la situación del río Gobela. Contraste y conocimiento técnico y búsqueda de acuerdos con el Gobierno Vasco para su ejecución.

b) Udalak udalaren estolderia sarearen egoerari dagokionez burutu duen aparteko azterlan teknikoaren diagnostikoaren emaitzaren azterlana; horren ardatzak euri jasak gertatzen diren aparteko egoeretan frogatuta dauden gune kritikoak izango dira (Ollarretxe, Elkano, Ereaga, etab.), eta baita horren ondorioz burutu beharko diren jarduketak ere.

b) Estudio del resultado del diagnóstico del estudio técnico extraordinario llevado a cabo por el Ayuntamiento en relación con la situación de la red de alcantarillado municipal centrado en los puntos críticos constatados en situaciones de carácter extraordinario ocasionadas por lluvias intensas (Ollarretxe, Elkano, Ereaga, etc.), así como de las actuaciones a ejecutar derivadas del mismo.

c) Erreferentziako uholde horietan kaltetuak izan diren herritarrei emango zaizkien laguntzen emakiden prozesuen jarraipena egitea.

c) Seguimiento del desarrollo del proceso de concesión de ayudas a los vecinos/as damnificados por las inundaciones de referencia.

d) Larrialdi egoerak kudeatzeko udal bulego bat gaitzeko aukerak aztertzea.

d) Estudio de la posibilidad de habilitar una Oficina Municipal para la gestión de situaciones de emergencia.

3.- Batzordearen osaketa ohiko informazio batzorde batena izango da. Ondore horretarako taldeetako bozeramaileek alkatetzari igorriko dizkiote eskuordeen izenak. Izen hori bidaltzeko epea Osoko Bilkuran onetsi eta aste batekoa da.

3º. La Composición de la Comisión será la correspondiente a una Comisión Informativa Ordinaria. A tal efecto los portavoces de los grupos remitirán a la Alcaldía los nombres de los representantes en un plazo de una semana, desde su aprobación en pleno.

4.- Batzorde horrek, aztertuko dituen gaien arabera, ahalik eta gehien bideratu eta erraztuko ditu uholdeen ondorioz antolatu diren herritarren elkarteen eta bestelakoen presentzia eta

4º. Esta Comisión, en función de las distintas cuestiones abordadas, facilitará al máximo la presencia y participación activa de las asociaciones de vecinos organizadas a raíz de las

parte hartze aktiboa.

inundaciones y otras que se consideren.

**KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLAK**

**CULTURA, EDUCACIÓN Y DEPORTES**

**98.- GETXO UDALERRIA "HAURRESKOLAK" PARTZUERGOAN SARTZEKO ESKAERA, PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK ONESTEA ETA EUSKO JAURLARITZAREKIKO LANKIDETZA HITZARMENA ONESTEA.**

**98º.- SOLICITUD DE INCORPORACIÓN DEL MUNICIPIO DE GETXO AL CONSORCIO HAURRESKOLAK, Y APROBACIÓN DE SUS ESTATUTOS ASÍ COMO DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL GOBIERNO VASCO.**

Alkate jaunak adierazitakoaren arabera, gaiari buruzko hiru zuzenketa aurkeztu dituzte, bat Alderdi Sozialistak eta bi Alderdi Popularrak.

El Sr. Alcalde indica que se han presentado tres enmiendas al respecto, una del grupo Socialista y dos del grupo Popular.

Almansa jaunak Alderdi Sozialistaren zuzenketa irakurri du, eta horrek testu hauxe erantsi nahi du proposameneko bigarren puntuan: "*baldin eta bete egiten bada Udaleko 2008ko otsailaren 29ko Osoko Bilkurak aho batez onetsitako mozioaren ebazpen-zatia (40. puntua), 0-3 urteko hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa*".

El Sr. Almansa da lectura a la enmienda del grupo Socialista que plantea adicionar al punto segundo de la propuesta el siguiente texto: "*supeditándolo al cumplimiento de la parte resolutiva de la moción aprobada por unanimidad en el Pleno del Ayuntamiento de fecha 29 de febrero de 2008, punto 40, relativa a la ampliación de la oferta educativa de 0 a 3 años*".

Arrue andreak adierazitakoaren arabera, puntu horretan aurkezturiko 1. zenbakiko zuzenketa Alderdi Sozialistak aurkezturikoaren berdin-berdina da.

La Sra. Arrue indica que la enmienda nº 1 de las presentadas a dicho punto es idéntica a lo planteado por el grupo Socialista.

Alderdi Sozialistaren zuzenketa bozkatu eta aho batez onetsi da.

Se somete a votación la enmienda del grupo Socialista, siendo aprobada por unanimidad.

Marisa Arruek, hori ikusita, ezabatu egin du Alderdi Popularrak puntu

Marisa Arrue ante esta situación retira la enmienda nº 1 del grupo Popular a

horri aurkezturiko 1. zenbakiko zuzenketa.

este punto.

Alderdi Popularraren bigarren zuzenketari dagokionez, Araudi Organikoan adierazitakoaren arabera, ez da horren tramitea onartuko, ez baitauka zerikusirik Osoko Bilkuran aurkezturiko proposamenaren edukiarekin; izan ere, azken hori Udala Haurreskolak Partzuergoan sartzeari buruzkoa da, eta Alderdi Popularrak haurrentzako eskolen udal-zerbitzua irekitzea planteatzen du.

En relación a la enmienda segunda del grupo Popular el Alcalde indica que, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento Orgánico, no va a admitir su trámite ya que no tiene relación con el contenido de la propuesta que se eleva al Pleno, ya que esta se refiere a la incorporación del Ayuntamiento en el Consorcio Haurreskolak, y la enmienda del grupo Popular plantea la apertura de un servicio municipal de escuelas infantiles.

Arrue andreak dioenez, bere taldea ez dago ados alkatearen iritziarekin, eta berriro esan du zuzenketa hori udalerrian haurrentzako eskolen beharrizan handia egotearen eraginezkoa dela, beharrizan hori ez baita konponduko Haurreskolak ezarrita.

La Sra. Arrue manifiesta la discrepancia de su grupo con el criterio del Alcalde y se reitera que esa enmienda responde a la necesidad imperiosa de escuelas infantiles que existe en el municipio, y que no se va a paliar con la implantación de las Haurreskolak.

Alkate jaunak dioenez, Batzordearen proposamena Haurreskolak Partzuergoan sartzera mugatzen da, eta Arrue andreak beste gauza bat planteatzen du eta, etorkizunean, beste bide batzuetatik tramitatu ahal da.

El Sr. Alcalde indica que la propuesta de la Comisión está limitada a la incorporación al Consorcio Haurreskolak y que lo que ella plantea es una cuestión diferente que puede tener su tramitación por otras vías en un futuro.

Marisa Arruek dio triste dagoela, alkateak beraren zuzenketa eztabaidatzeko aukerarik eman ez duelako, baina onartu egin du alkatearen erabakia; aditzera eman du hurrengo Osoko Bilkuran moziotzat aurkeztuko dutela.

Marisa Arrue manifiesta su tristeza porque el Alcalde no deje debatir la enmienda, aunque acata la decisión del Alcalde manifestando que en posterior pleno lo presentarán como una moción.

Almansa jaunak esan du alderdi sozialista haur-hezkuntzarako eskubidearen aldekoa dela; izan ere, bere iritziz, hori oraindik konpondu gabeko arazoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, plaza publiko gutxi

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista defiende el derecho a la educación infantil, lo cual es una asignatura pendiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco por la escasez de plazas públicas, y concretamente en

daudelako; Getxon, hain zuzen ere, eskaintza pribatu bakarra dago, eta hori balizko eskariaren %16ra baino ez da heltzen. Berak esandakoaren arabera, Haurreskolak Partzuergoa ez da guztiz publikoa, lehenengo eta behin gurasoek 180 €-ko kuota ordaindu behar dutelako; gainera, kritikatu egin du oraindik ere eskola-maparik ez egotea, ezta haur-hezkuntzarako araudirik ere. Haurreskolak Partzuergoari eta horren Estatutuei dagokienez, EUDELeko sozialistek kritikatu egin zuten hori, Euskal Autonomia Erkidego osoko ezarkuntza bermatzen ez duelako, Hezkuntza Sailaren kostuak udalei leporatzen zaizkielako, kalitateko erreferentea segurtatzen ez duelako (hezkuntza-sistematik kanpo baitago), Hezkuntza Sailak organorik gehienetan gehiengoa duelako (zerbitzuaren gaineko erantzukizun berbera eduki barik) eta "D" eredua derrigorrezkotzat ezartzen duelako, indarreko gainerako hizkuntza-ereduei dagokienez. Azkenik, esan du, hori guztia aintzat hartu arren, Alderdi Sozialistak aldeko botoa emango duela; izan ere, une honetan aukera bakarra da, aukera hori udalerriko haur-eskolekin bateragarria izatearen kalterik gabe, baldin eta baliabide ekonomiko nahikoa badago eta Eusko Jaurlaritzak bere eskaintza publikoa dohainik zabaltzen ez badu.

Getxo únicamente existe una oferta privada y alcanza el 16% de la posible demanda. Manifiesta que el Consorcio Haurreskolak tampoco es público totalmente, ya que en primer lugar requiere una cuota de 180 €uros por parte de los padres, y además critica la inexistencia todavía de un mapa escolar, y de una normativa clara reguladora de la educación infantil. Recuerda que respecto al Consorcio y Estatutos de Haurreskolak, los socialistas en EUDEL criticaron el mismo, ya que no se garantizaba la implantación en toda la Comunidad Autónoma del País Vasco, cargaba a los ayuntamientos con los costes que correspondería asumir al Departamento de Educación, no está garantizado un referente de calidad ya que está fuera del sistema educativo, y el Departamento de Educación se reserva la mayoría en los órganos de gobierno, sin que tenga la misma responsabilidad sobre el servicio, e impone además el modelo "D" como obligatorio frente al resto de los modelos lingüísticos vigentes. Finaliza manifestando que pese a todas estas consideraciones, el grupo Socialista va a votar a favor, ya que en estos momentos es la única opción existente, sin perjuicio de que esta opción pueda ser compatible con escuelas infantiles municipales si hay recursos económicos suficientes y el Gobierno Vasco no amplia su oferta pública de manera gratuita.

Arrue andreak dioenez, Alderdi Popularrak urteetan planteatu du udalerriko haur-eskolen sorrera, eta horrexegatik planteatu du alkateak tramitatu nahi izan ez duen emendakina. Berak dioenez, haur-eskolak ezinbestekoak dira laneko eta familiako bizitza bateratzeko, eta Getxoko eskaintza urria (pribatua

La Sra. Arrue manifiesta que el grupo Popular lleva años planteando la creación de escuelas infantiles municipales, y por eso se planteaba la enmienda que el Alcalde no ha permitido tramitar. Manifiesta que las escuelas infantiles son indispensables para la conciliación de la vida laboral y familiar, y en Getxo la escasa oferta,

bakarrik) ez da nahikoa; hain zuzen ere, eskaintza egiten duten zentro guztiek itxarote-zerrenda dute, eta egoera hori larriagoa da 0-1 urteko eskaintzan. Berak gogoratu duenez, 2006ko udal-ikerketa batean adierazitakoaren arabera, 0-3 urteko haurrak matrikulatzeko egoeran zuten bikoteen eredurik gogokoena "A" eredua zen; beraz, hizkuntza-eredu guztiak bermatzeko aurkeztu dute zuzenketa hori.

que es únicamente privada, no es suficiente, y de hecho todos los centros ofertantes tiene lista de espera, situación que se agudiza en la oferta de 0 a 1 años. Recuerda que en un estudio municipal del año 2006 se indicaba que el modelo preferido por aquellas parajes que estaban en situación de matricular niños en la etapa de 0 a 3 años era el modelo "A", por lo que han presentado la enmienda en sentido de garantizar los diferentes modelos lingüísticos.

Alkate jaunak aditzera eman duenez, gobernu-taldeak, hasiera-hasieratik, laneko eta familiako bizitza bateratzearen aldeko apustua egin du, eta horrexegatik sustatu zuen, besteak beste, Haurreskolak Partzuergoa. Berak dioenez, Partzuergoan sartzeko, goitik behera birmoldatu behar da San Ignazio ikastetxea, eta horrek bidezko kreditu ekonomikoak beharko ditu; gainera, gobernu-taldea Eusko Jaurlaritzarekin lanean ari da, etorkizun hurbilean beste Haurreskola bat irekitzeko Erromon. Alkateak gogorarazi duenaren arabera, San Inazioko Haurreskola Euskal Autonomia Erkidego osokorik handiena izango da, ikasle kopuruari dagokionez, eta esan du badakiela oraingo eskaria, apurka-apurka, erantzuten joango dela eta talde politikoek, kasuan kasuko aurrekontu-kredituak onetsita, euren nahiak gauzatzeko aukera izango dutela. Amaitzeko, esan du Eusko Jaurlaritza hezkuntza-ereduetan 0-3 urteko etapa sartzeko aukera aztertzen ari dela.

El Sr. Alcalde manifiesta que el equipo de Gobierno ha apostado desde un principio por la conciliación de la vida laboral y familiar, y que es una de las razones para el apoyo al Consorcio Haurreskolak. Manifiesta que la incorporación al Consorcio supone una remodelación importante del Colegio San Ignacio, que necesitará de los oportunos créditos económicos, e indica así mismo que el equipo de Gobierno está trabajando con el Gobierno Vasco para abrir en un futuro próximo otra Haurreskola en Romo. Recuerda que la Haurreskola de San Ignacio va a ser la de mayor capacidad de alumnos de toda la Comunidad Autónoma, y manifiesta que es consciente de la necesidad de la demanda existente que paulatinamente se intentará ir atendiendo, y que los grupos políticos, mediante la aprobación de los correspondientes créditos presupuestarios, tendrán la ocasión de materializar las voluntades de apoyo que manifiestan. Finaliza indicando que el Gobierno Vasco está estudiando la incorporación de la etapa de 0 a 3 años dentro de los modelos educativos.

Gaia bozkatu ondoren (eztabaidan egindako zuzenketarekin) Osoko Bilkuran dauden batzarkide guztiek

Sometida la propuesta a votación, con la enmienda admitida durante el debate, es aprobada por la totalidad de

aho batez onetsi dute.

Horrenbestez, eta Kultura, Hezkuntza eta Kirolen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

1.- Getxoko udalerria Haurreskolak Partzuergoan sartzea eskatzea, hark Haur-eskolak eta hiru urtetik beherakoen laguntza eta hezkuntza arreta kudeatzeko dituen estatutuak onartuz.

2.- Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetza hitzarmena eta bere eranskina onetsiko dira, hura osatzeko. Biak eranskin gisa sartuko dira espedientean, baldin eta bete egiten bada Udaleko 2008ko otsailaren 29ko Osoko Bilkurak aho batez onetsitako mozioaren ebazpen-zatia (40. puntua), 0-3 urteko hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa.

3.- Getxoko Udaleko alkate-lehendakariari eskumena ematea adierazitako Lankidetza Hitzarmena sinatzeko.

4.- Ondoko zinegotzi hauek Getxoko Udalaren ordezkari izango dira Haurreskolak Partzuergoko Batzar Orokorrean, denboraldi berean, bata bestearen atzetik eta ordena honetan:

a. Mercedes Angulo Ordozgoiti
b. Iñaki Urkiza Arana
c. Marisa Arrue Bergareche
d. Begoña Ezkurra Ciruelos

miembros de la corporación presentes.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Cultura, Educación y Deportes, se acordó por unanimidad:

1.- Solicitar la incorporación del Municipio de Getxo al Consorcio Haurreskolak aprobando los Estatutos del mismo para la gestión de las Escuelas Infantiles y la atención asistencial y educativa a menores de tres años.

2.- Aprobar también el Convenio de Colaboración con el Gobierno Vasco para su constitución así como el Anexo del mismo que se incorporan como Anexo al expediente de su razón, supeditándolo al cumplimiento de la parte resolutiva de la moción aprobada por unanimidad en el Pleno del Ayuntamiento de fecha 29 de febrero de 2008, punto 40, relativa a la ampliación de la oferta educativa de 0 a 3 años.

3.- Facultar al Alcalde – Presidente del Ayuntamiento de Getxo para la firma del Citado Convenio de Colaboración.

4.- Nombrar a los siguiente concejales, como representantes del Ayuntamiento de Getxo en la Asamblea General del Consorcio Haurreskolak, por el mismo periodo de tiempo, de manera sucesiva y en el siguiente orden:

a. Mercedes Angulo Ordozgoiti
b. Iñaki Urkiza Arana
c. Marisa Arrue Bergareche
d. Begoña Ezkurra Ciruelos

**OGASUN, EKONOMIA, GIZA BALIABIDE ETA KONTUAK**

**HACIENDA, ECONOMÍA, RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS**

**99.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 2008-05-20KO 2.894 DEKRETUAREN BERRI EMATEA, BERAREN BIDEZ, AURREKONTUA KREDITUA GAITUZ ALDATU ZEN.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Alkatetza-Udalburutzaren 2008ko maiatzaren 20ko 2.894 Dekretuaren jakitun geratzea. Beraren bidez, aurrekontua aldarazi zen, kreditua gaituz, 41.263,00 eurotan.

Maria Arruek dioenez, Alderdi Popularrak premiaren aldeko botoa emango du; izan ere, Dekretua Osoko Bilkura honetan bertan aztertu da, eta, gainera, alkatearen izaera demokratikorik eza agerian gelditzea ere nahi du.

Marisa Arrue manifiesta que el grupo Popular apoyará la urgencia puesto que el Decreto se ha dado cuenta en este mismo Pleno, y para que también se evidencie la falta de talante democrático del Alcalde.

Alkate jaunak hitza hartu eta gogoratu egin du, premiazkoa izateko, kontuan hartu behar dela ea Mozio hori mozioan aurkezteko epe arruntaren barruan aurkezteko modukoa izan den. Alkate jaunaren iritziz, Dekretua ekainaren 6an sinatu denez, eta aintzat hartuta korporazioko kideek informatikaren bidez dekretuak zuzenean eta ematen diren egunean bertan eskuratu ahal dituztela, ikuspegi teknikotik begiratuta ez dago halako premiarik; horrenbestez, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak planteatzen duten premia zergati politikoetan oinarriturik egon daiteke, baina ez zergati teknikoetan.

Interviene el Sr. Alcalde para recordar que la valoración de la urgencia ha de hacerse teniendo en cuenta si dicha Moción hubiera podido ser presentada dentro del plazo ordinario de presentación de mociones. Estima que habiendo sido firmado el Decreto el 6 de junio, y teniendo acceso directo los corporativos, vía informática, a los Decretos en la misma fecha de su firma, existía plazo suficiente para incorporarla dentro del orden del día, por lo que desde un punto de vista técnico no existe la urgencia, y por tanto la urgencia que plantean el grupo Socialista y el grupo Popular sólo puede basarse en consideraciones políticas pero no técnicas.

Mozioaren premia bozkatu eta onetsi egin da, aldeko 13 botorekin (PP, PSE-EE eta EB) eta aurkako 10 botorekin (PNV); horrela, eguneko gai-zerrendan jaso da, 10. zenbakiarekin.

Sometida la urgencia a votación es estimada al obtener 13 votos a favor del PP, PSE-EE y EB y 10 en contra del PNV, pasándose a incorporarla al orden del día con el número 110.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES, INTERPELACIONES Y RUEGOS Y PREGUNTAS**

**107.- TALDE POPULARRAREN MOZIOA, "UHOLDEAK PREBENITZEKO BATZORDE BEREZIA" SORTZEKO.**

**107º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/CREACIÓN DE UNA "COMISIÓN ESPECIAL DE PREVENCIÓN DE INUNDACIONES".**

Mozioa kendu egin zuen berori proposatu zuen taldeak berak.

La Moción de referencia fue retirada por el grupo proponente de la misma.

**108.- UDALEKO TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA, "AREETAKO GELTOKI PLAZAREN ONDOAN APARKALEKU PUBLIKO GISA ERABILTZEN DEN ORUBEAREN EGOERA TXARRA DELA-ETA".**

**108º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/"MAL ESTADO DEL SOLAR QUE ES UTILIZADO COMO APARCAMIENTO PÚBLICO, JUNTO A LA PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS".**

Luis Almansak mozio hori irakurri du.

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Iñaki Gamerok dionez, Alderdi Popularrak Mozioaren alde egingo du; gainera, kritikatu egin du orubearen egoera txarra; hain zuzen ere, berak dioenez, ezin daiteke justifikatu udal-titulartasuna edukitzea.

Iñaki Gamero manifiesta que el grupo Popular va a apoyar la Moción, y critica el deficiente estado del solar y que no se puede justificar en que no sea de titularidad municipal.

Mozioa bozkatu ondoren, bertaratu diren batzarkide guztiek onetsi dute.

Sometida la Moción a votación, es aprobada por la totalidad de los corporativos presentes.

Hortaz, hauxe erabaki da aho batez:

En consecuencia, por unanimidad se acordó:

"Mozio honen helburua gobernu-taldeak Areetako geltokiko plazaren ondoan dagoen orubean esku hartzea da; orube

"La presente moción tiene como finalidad conseguir que el Equipo de Gobierno intervenga en el

hori, hain zuzen ere, gaur egun eta aldi baterako, aparkalekurako erabiltzen da.

adecentamiento del solar anexo a la plaza de la Estación de Las Arenas que actualmente y de manera temporal sirve de aparcamiento.

Zona horretan narriadura eta utzikeria handia dago, eta bidezuloz beteta dago; euria egiten duenean, beraz, putzu handiak sortzen dira; horrenbestez, bertako zikinkeria ere aintzat hartuta, Areeta-Erromoko erdiguneko zati horrek hirigintza-gabezia handiak ditu, eta horrek eragina dauka segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoan.

El estado de deterioro y abandono que se encuentra esta zona con enormes baches, que se transforma cuando llueve en grandes charcos, más la suciedad acumulada, hacen de este trozo del centro de Las Arenas-Romo un lugar con deficiencias urbanísticas que afectan a la seguridad, la salubridad y el ornato público.

Halaber, ez da onargarria turismo-bokazioa duen udalerri batean bertan behera utzitako eta zikinkeriaz betetako zonak egotea.

Así mismo es inaceptable que un municipio con vocación turística existan zonas con este estado de abandono y suciedad.

Kontuan hartu behar da goian adierazitakoa eta honako legezko xedapen hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 199.1 artikulua; 1346/1976 EDko 181. artikulua, Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Araubideari buruzko Legeko Testu Bategina; 1/1992 EDko 245 artikulua, Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Araubideari buruzko Legeko Testu Bategina. Horietan guztietan, funtsean, hauxe esaten da: lurren, ekimen pribatuko urbanizazioen, eraikinen eta kartelen jabeek segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoko baldintza egokietan mantendu beharko dituzte; era berean, udalek eta arlo honetan eskumena duten gainerako organismoek, ofizioz edo interesaturen batek eskatuta, beharrezko obrak egingo dituzte, horiek egoera onean egoteko”.

Teniendo en cuenta lo arriba expresado y las disposiciones legales siguientes: artículo 199.1 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco; artículo 181, del RD 1346/1976, Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana; artículo 245 del RD 1/1992, Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, que básicamente vienen a decir todos ellos que:“Los propietarios de terrenos, urbanizaciones de iniciativa particular, edificaciones y carteles deberán mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad y ornato público, y los Ayuntamientos y, en su caso los demás Organismo competentes ordenarán, de oficio o a instancia de cualquier interesado, la ejecución de las obras necesarias para conservar aquella condiciones”.

Goian adierazitako guztiaren arabera, Udaleko Alderdi Sozialistak honako erabaki-proposamena aurkeztu du

En consecuencia con todo lo arriba expresado, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento

Osoko Bilkuran:

1.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkura ez dago ados Areetako Geltokiko Plazaren ondoan dagoen orubearen egoerarekin; hori aparkaleku publikotzat erabiltzen da behin-behinean, eta eragina dauka segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoan.

2.- Hortaz, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak eskabidea egingo dio gobernu-taldeari beharrezko neurri guztiak hartzeko, berehala, orube horrek segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoari loturiko baldintza guztiak betetzeko".

Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo, muestra su disconformidad con el mal estado que se encuentra el solar anexo a la Plaza de la Estación de Las Arenas que es utilizado provisionalmente para aparcamiento público, y que afecta a la seguridad, salubridad y ornato público.

2.- En consecuencia, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo, acuerda instar al Equipo de Gobierno a que de inmediato tome las medidas oportunas para que dicho solar adquiera las debidas condiciones de seguridad, salubridad y ornato público".

**109.- <u>UDAL TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA, "URIBE KOSTA ESKUALDEAN OSPITALE BAT ERAIKITZEARI BURUZKOA".</u>**

**109º.- <u>MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/CONSTRUCCIÓN DE UN HOSPITAL EN LA COMARCA DE URIBE KOSTA".</u>**

Luis Almansak mozio hori irakurri du. Halaber, aditzera eman du Uribe Kostako eskualdean Bizkaiko 112 udalerrietako 51 sartzen direla; hain zuzen ere, Bizkaiko biztanleria osoaren %24,20. Dimentsio hori eduki arren, eskualde honetan ez dago akutuen ospitalerik (Bizkaiko gainerako eskualdeetan badago). Berak dioenez, 2007tik PSEk Uribe Kostan akutuentzako ospitalea eraikitzea sartu du bere planteamenduetan; gainera, PSE-EEk Eusko Jaurlaritzan horretarako eman dituen pausoak ere azaldu ditu.

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia. Indica así mismo que la Comarca de Uribe Kosta está integrada por 51 de los 112 municipios de Bizkaia, y en la misma se sitúa el 24,20% de la población de Bizkaia. Pese a esa dimensión es la única de las cuatro Comarcas que no cuenta con ningún hospital de agudos. Manifiesta que el PSE desde el año 2007 ha incorporado a sus planteamientos la construcción de un hospital comarcal para agudos en Uribe Kosta, e indica los pasos que al respecto ha dado el PSE-EE en el Parlamento Vasco.

Marisa Arruek adierazitakoaren

Marisa Arrue manifiesta que el grupo

arabera, Alderdi Popularrak, 2007an Getxon ospitale bat eraikitzeko aurkeztu zuen Mozioarekiko koherentzian, Alderdi Sozialistaren Mozioaren alde egingo du, baina erabakian hauxe jasotzeko eskabidea egin du: "*Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak berretsi egin du ospitalea Getxon eraikitzeko interesa; horretarako, berretsi egin du helburu hori lortzeko lurrak eskaintzeko konpromisoa*".

Popular coherente con la Moción que presentó en diciembre del año 2007 para la construcción de un hospital en Getxo, va a apoyar la moción del grupo Socialista, pero solicita que se incorpore al acuerdo lo siguiente: "*el Pleno del Ayuntamiento de Getxo ratifica su interés en que el hospital se construya en Getxo, para lo cual se reafirma en su compromiso de destinar los terrenos para tal fin*".

Almansa jaunak onartu egin du proposamena.

El Sr. Almansa acepta la propuesta.

Maria Arruek dioenez, Alderdi Popularraren ustez, biztanleria gero eta zaharragoa denez, ospitalean gero eta jende gehiago sartuko da, eta sartutakoek bertan igarotako egun kopurua ere gero eta handiagoa izango da. Badaki Eusko Jaurlaritzak bereizmen handiko zentroa eraiki nahi duela Urdulizen, baina hori ez da ospitalea, zentro osagarria baizik; izan ere, bertako instalazioek gehienez egun bateko egonaldiak eskainiko dituzte. Gogora ekarri du eskuinalde osoan ez dagoela akutuen ospitalerik, ezta halakorik eraikitzeko aurreikuspenik ere; beraz, Eusko Jaurlaritzari gogora ekarri behar zaio Eusko Legebiltzarrak Alderdi Popularraren ekimen bat onetsi zuela, eskuinalderako ospitale bat eraikitzeko (gutxienez, 400 oheko ospitalea).

Marisa Arrue indica que el grupo Popular entiende que con el progresivo envejecimiento de la población los ingresos hospitalarios van a aumentarse tanto en cantidad como en días de permanencia. Reconoce que el Gobierno Vasco quiere construir un centro de alta resolución en Urduliz, pero que eso no es un hospital, sino algo complementario, ya que dichas instalaciones no admitirán ingresos hospitalarios sino simplemente permanencias por un día. Recuerda que en toda la margen derecha no hay un hospital ni una previsión de construcción de un hospital de agudos, lo que hace necesario recordar al Gobierno Vasco que el Parlamento Vasco aprobó una iniciativa del Partido Popular para la construcción de un hospital para la margen derecha con un mínimo de 400 camas.

Koldo Iturbek adierazitakoaren arabera, gobernu-taldearen iritziz, Alderdi Sozialista "hauteskunde-kanpainari begira" dago. Berak gogora ekarritakoaren arabera, gai hau 2007ko abenduan eztabaidatu zenez, gobernu-taldeak esan zuen eskuinaldeko ospitalearen ezaugarrien (dimentsioa, kokalekua, etab.) gaineko ikerketa

Koldo Iturbe indica que en opinión del equipo de Gobierno la Moción del grupo Socialista se sitúa en "clave de campaña electoral". Recuerda que cuando se discutió esta cuestión en diciembre del 2007, el equipo de Gobierno indicaba que era Osakidetza, como organismo competente, quién debiera hacer los estudios acerca de la

Osakidetzak egin behar zuela, bera baitzen horretarako organo eskuduna. Berak dioenez, Osakidetzak Uribe Kostako eskualdean ospitale bat eraikitzea erabaki du; gainera, Eskualdean osasun-azpiegiturak daude, eta Osakidetzan seiehun milioi euroko aurreikuspena dago ospitalea eraikitzeko (beharrezko ohe guztiak izango dituen ospitalea); halaber, bidezko tramiteak egiten ari dira, funtzionamendu-planaren ikerketaren bidez. Ospitalea Urdulizen egin nahi da, eta, horretarako, akordioa lortu dute bertako Udalarekin, lurrak lortu ahal izateko. Osoko Bilkurari Osakidetzak Eskualdean kokatu nahi duen proiektuari buruzko informazioa eman dio; bertan, ohe kopuruari, tratamenduei, zerbitzuei eta abarri buruzko informazioa dago. Azkenik, aditzera eman du Osakidetzak, proiektua zehaztuta duenean, zonako udal guztietan aurkeztuko duela.

dimensión, ubicación etc, del hospital en la margen derecha. Manifiesta que Osakidetza tiene decidido implantar un hospital en la Comarca de Uribe Kosta, recordando que en la Comarca existen también infraestructuras sanitarias y que en Osakidetza hay una previsión de seiscientos millones de €uros para la construcción del hospital, con las camas que sean necesarias, y se están realizando los trámites correspondientes con el estudio del plan de funcionamiento. El hospital se pretende ubicar en Urduliz, para lo cual han llegado a un acuerdo con el Ayuntamiento para facilitar los terrenos. Facilita al Pleno información acerca del proyecto que Osakidetza pretende ubicar en la Comarca, y que recoge datos acerca de determinación de camas, tratamientos, servicios, etc. Finaliza manifestando que Osakidetza, en cuanto tenga definido el proyecto, lo presentará a los ayuntamientos de la zona.

Almansa jaunak dioenez, sozialistek honako honengatik aurkeztu dute mozioa eskualdeko udalerri guztietan: seguru dakitelako Osakidetzak Urdulizen eraiki nahi duen ospitaleak ez duela oherik, eta, horrenbestez, Osakidetzak planteatzen duena sozialisten proposamenarekin bateragarria delako; proposamen sozialistek, gainera, Eusko Jaurlaritzaren 2007ko eta 2008ko aurrekontu-konpromisoak jasotzen dituzte. Berretsi egin ditu Uribe Kostan gutxienez 400 ohe dituen ospitale klasiko bat eraikitzeko arrazoiak, eta aditzera eman du, PSE-EEk Osasuneko kudeaketan jarraitu izan balu, ospitalea dagoeneko eraikita egongo litzatekeela eta Osakidetza oraindik ere lehenengo postuan egongo litzatekeela, osasun-zerbitzu autonomikoen arloan; hala ere,

El Sr. Almansa manifiesta que las razones para presentar la moción por parte de los socialistas, en todos los municipios de la Comarca, es porque tienen datos fehacientes de que Osakidetza quiere construir en Urduliz un hospital que no contempla camas hospitalarias, y por eso lo que plantea Osakidetza es compatible con las propuesta socialistas, que además las propuestas socialistas recogen los compromisos presupuestarios de los ejercicios 2007 y 2008 del Gobierno Vasco. Insiste en las razones de la necesidad de un hospital clásico de al menos 400 camas en la zona de Uribe Kosta, e indica que si el PSE-EE hubiera continuada al frente de la gestión de Sanidad, el hospital estaría construido y Osakidetza seguiría siendo la número uno en el ranking de los servicios de

Osakidetza PNVk kudeatzen duenetik, zazpigarren postuan gaude. Azkenik, egoera aldatzeko itxaropena dauka, datozen udal-hauteskundeak kontuan hartuta.

salud autonómicos, pero que desde que el PNV se ha hecho cargo de dicha gestión Osakidetza ha pasado al séptimo puesto del ranking. Finaliza manifestando que espera que esta situación se altere con motivo de las próximas elecciones autonómicas.

Arrue andreak dioenez, egia da Osakidetzak Urdulizen bereizmen handiko zentroa eraikiko duela, baina hori ez da ospitale bat; izan ere, ez ditu aintzat hartzen egun batetik gorako ospitaleratzeak; gainera, Eusko Jaurlaritzan gutxienez 400 oheko ospitalea onetsi zen, Galdakaokoaren, Basurtokoaren eta halakoen antzekoa. Getxon ere halako ospitale bat eraikitzeko eskabidea egiten du; berak dioenez, hori egingarria izango litzateke, gobernu-taldeak horretan interes handiagoa eduki balu.

La Sra. Arrue manifiesta que es verdad que Osakidetza va a construir en Urduliz un centro de alta resolución, pero que no es ese centro hospitalario, ya que no contempla hospitalizaciones superiores a un día, y que lo que en el Parlamento Vasco se aprobó era un hospital de al menos 400 camas al estilo de los de Galdakao, Basurto, etc. Reivindica que dicho hospital se construya en Getxo, y que esto hubiera sido posible si hubiera habido un mayor interés por parte del equipo de Gobierno.

Koldo Iturbek, Luis Almansari, berriro esan dio Alderdi Sozialistaren proposamena hauteskundeei begira dagoela; gainera, gogora ekarri dio aurrekontuetan konpromisoa dagoela ospitalea eskuinaldean egiteko, eta Osakidetzak bete egingo duela konpromiso hori, Eskualdean arreta egokia eskaintzeko behar diren ohe guztiak dituen ospitalea eraikita; azkenik, berak dioenez, konfiantza osoa dauka Osakidetzaren kudeaketa egokian, gaitasun handiko erakundea baita. Aldi berean, kritika egin dio Alderdi Popularrari, ospitalearen kokalekuaren inguruan populismoa egiteagatik; izan ere, gobernu-taldeak, abenduko Osoko Bilkuran adierazitakoaren arabera, errespetatu egiten ditu Osakidetzak modu arrazoituan hartzen dituen erabakiak; era berean, gogora ekarri du bere garaian ere lurrak lagatzearen aldeko jarrera erakutsi zuela, baldin eta

Koldo Iturbe indica a Luis Almansa que se ratifica en que la propuesta del grupo Socialista es plenamente electoralista, y recuerda que existe un compromiso en los presupuestos para hacer un hospital en la margen derecha, y que es lo que Osakidetza va a cumplir, a través de la construcción de un centro hospitalario con las camas que sean necesarias para atención a la Comarca, y finaliza manifestando su confianza en la correcta gestión por parte de Osakidetza, que es el organismo competente. Critica así mismo al grupo Popular por hacer populismo respecto a la ubicación del hospital, ya que el equipo de Gobierno, como dijo en el Pleno de diciembre, respeta las decisiones que de manera motivada toma Osakidetza, y recuerda que ya manifestó en su momento la posición favorable a ceder los terrenos, si de su decisión determinaba que la ubicación mejor era en Getxo.

kokalekurik egokiena Getxokoa zela frogatzen bazen.

Mozioa bozkatu da, eztabaidan sartutako zuzenketarekin eta emaitza hauxe izan da: aldeko 12 boto (PP eta PSE-EE) eta 11 abstentzio (PNV eta EB).

Sometida la Moción de referencia a votación, con la enmienda introducida a lo largo del debate, obtiene el siguiente resultado: 12 votos a favor del PP y PSE-EE y 11 abstenciones del PNV y EB.

Horrenbestez, hauxe erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, por mayoría, se acordó:

“Bizkaiko lau eskualdeetatik, akutuentzako ospitalerik ez duen bakarra Uribe Kosta edo Eskuinaldea da. Gure eskualdeko zuzkidura zero ohekoa da, eta EAEn akutuentzako ospitale-instalaziorik ez duen eskualde bakarra da. Horren ondorioz, gure eskualdea, 200.000 biztanleko biztanleria eta etengabeko hazkundea izan arren, Europako azken eskualdeen artean dago arlo horretan.

Aipagarria da gure eskualdean osasun-azpiegiturarik ez egotea ez dagoela inondik inora ere konpentsatuta ondoko eskualdeetako gehiegizko zuzkidurarekin; izan ere, Bizkaiko lau eskualdeen baterako zuzkidura osoa mila biztanleko 1,8 ohekoa da (akutuentzat); zifra hori Gipuzkoakoa (2,1) eta Arabakoa (2,3) baino askoz ere baxuagoa da. Euskadiko batez bestekoa 2,0 da, eta batez besteko horren azpitik dagoen EAEko Lurralde Historiko bakarra Bizkaia da.

Beraz, Eskuinaldean ospitale publikoa eraikitzea defendatzeko arrazoibide nagusia ekitatea da; izan ere, eskualde honetako biztanleok ez daukagu arreta espezializatuko sistemarik, ospitale publikoetan ospitaleratzeari dagokionez; hain zuzen ere, Euskal

“De las cuatro comarcas que componen Bizkaia, la comarca de Uribe Kosta, o Margen Derecha, es la única que no cuenta con ningún hospital de agudos. La dotación de nuestra comarca es de cero camas, siendo la única de toda la CAV que no cuenta con dispositivos hospitalarios para agudos. Ello coloca a nuestra comarca, con una población de más de 200.000 habitantes y en continuo crecimiento, a la cola de las regiones de Europa en esta materia.

Cabe decir que esta falta de infraestructura sanitaria en nuestra comarca no está ni mucho menos compensada por una sobredotación en las comarcas colindantes, ya que la dotación conjunta de las cuatro comarcas de Bizkaia es de 1,8 camas de agudos por cada mil habitantes, claramente por debajo de la cifra de 2,1 de Gipuzkoa y de 2,3 de Araba. La media de Euskadi es de 2,0, siendo Bizkaia el único territorio de la CAV por debajo de esta media.

De esta forma, es la equidad el argumento principal para defender la construcción de un hospital público en la Margen Derecha, por cuanto los habitantes que residimos en esta comarca padecemos de una accesibilidad al sistema de atención

Autonomia Erkidegoko gainerako eskualdeetan baino zuzkidura askoz ere urriago dago geure eskualdean.

especializada, en cuanto a internamiento hospitalario público se refiere, claramente inferior al del resto de la comunidad autónoma.

Beste alde batetik, gure iritzian, ospitale batek, halakotzat hartu ahal izateko, oheak izan behar ditu; gainera, hori leku guztietan dagoen iritzia da. Era berean, akutuen ospitale batek, gaur egun, espezialitate eta unitate asko izan behar ditu, mota horretako gainerako ospitaleetan daudenekin homologatzeko modukoak.

Por otra parte, concebimos que un hospital, para ser denominado tal, debe estar dotado de camas, y consideramos esta idea un concepto básico universalmente compartido, de igual forma que un hospital de agudos hoy en día debe disponer de un elenco de especialidades y unidades homologables a cualquier otro de su clase.

Hortaz, eskualdeko biztanle kopurua aintzat hartuta, eta 1000 biztanleko 2 oheko (akutuentzat) zuzkidura (Gipuzkoakoa eta Arabakoa baino txikiagoa) zentzuzkotzat hartuta, eskuinaldeko ospitale publikoak 400 ohe inguruko ospitaleratze-dimentsioa izan behar du.

Así pues, teniendo en cuenta la población de la comarca y dando por razonable una dotación de 2 camas de agudos por cada 1000 habitantes (inferior a la de Guipúzcoa y Álava), se llega a la conclusión de que el hospital público de la margen derecha debe tener una dimensión de hospitalización en el entorno de las 400 camas.

Bestalde, gure ustez, aurrekontu-konpromisoak bete egin behar dira. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak PSE-EErekin sinaturiko aurrekontu-akordioak; horietan, Uribe Kostako eskualdean ospitale bat eraikitzeko eta martxan jartzeko konpromisoa hartu zen.

Por otro lado, entendemos que los compromisos presupuestarios están para cumplirlos. Nos referimos a los acuerdos presupuestarios que formalizó el Gobierno Vasco con el PSE-EE en los que se contemplaba el compromiso de construcción y puesta en funcionamiento de un hospital en la Uribe Kosta.

Hori guztia aintzat hartuz, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu da Osoko Bilkuran:

Por todo ello, se propone al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

LEHENA: Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak eskabidea egingo dio Eusko Jaurlaritzari, Uribe Kostako eskualdean oheak dituen ospitale publiko bat eraikitzen hasteko.

PRIMERO: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a iniciar la construcción de un hospital público con camas en la comarca de Uribe Kosta.

BIGARRENA: Getxoko Udaleko Osoko

SEGUNDO: El Pleno del Ayuntamiento

Bilkurak eskabidea egingo dio Eusko Jaurlaritzari, Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrarekin sinaturiko aurrekontu-konpromisoak betetzeko, 2007ko eta 2008ko aurrekontu-ekitaldietarako.

de Getxo insta al Gobierno Vasco a cumplir los compromisos presupuestarios firmados con el Partido Socialista de Euskadi.-Euskadiko Ezkerra para los ejercicios presupuestarios de 2007 y 2008.

HIRUGARRENA: Getxoko Udaleko Osoko Bilkuraren ustez, ospitale horrek gutxienez 400 ohe eduki beharko ditu, EAEko gainerako biztanleek duten ohe-ratioa kontuan hartuta.

TERCERO: El Pleno del ayuntamiento de Getxo considera que este hospital deberá estar dimensionado en su número de camas, con un mínimo de 400, de acuerdo al ratio de camas del que gozan el resto de ciudadanos de la CAV.

LAUGARRENA: Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak berretsi egiten du ospitalea Getxon eraikitzeko interesa, eta, horretarako, berriro egiten du horretarako lurrak lagatzeko eskaintza.

CUARTO: el Pleno del Ayuntamiento de Getxo ratifica su interés en que el hospital se construya en Getxo, para lo cual se reafirma en su compromiso de destinar los terrenos para tal fin.

BOSGARRENA: Erabaki hau Eusko Jaurlaritzari eta talde parlamentario guztiei jakinaraziko zaie".

QUINTO: Del presente acuerdo se dará traslado al Gobierno Vasco y a los distintos Grupos Parlamentarios".

Iñaki Urkizak atsedenaldi bat eskatu du, premiazko hurrengo Mozioa aztertu baino lehen; beraz, 13:30etan hamar minutuko atsedenaldia egin da.

Iñaki Urkiza pide un receso previamente a tratar la siguiente Moción de urgencia, siendo las 13,30 horas se suspende la sesión por diez minutos.

Bilkura 13:40etan hasi da berriro.

Se reanuda la sesión siendo las 13,40 horas.

Eguneko Gai Zerrendatik kanpo, premia-adierazpenaren ostean, eta, beraz, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan ezarritako *quorum*arekin, honako akordio hau jasotzea erabaki zen:

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir el siguiente acuerdo:

**110.- ALDERDI SOZIALISTAREN PREMIAZKO MOZIOA. UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEAREN ETA GETXOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA EZEZTATZEA, 08.6.6KO 3145/2008 DEKRETUA ONDORE BARIK UTZIZ.**

Luis Almansak mozio hori irakurri du.

Jesús Tocak adierazitakoaren arabera, Alderdi Popularrak mozioaren aldeko botoa emango du, orain arte halako gaien inguruan egin dituen jarduketekin eta adierazpenik koherentzia mantentzeko. Berretsi egin du alkateak, bere aldetik bakarrik, gainerako korporaziokideak iraintzeko jarduketa bat egingo duela, eta hori, bere iritzian, ez da bidezkoa; halaber, korporazio horrek ordezkatzen dituen hiritarrak ere iraindu egingo ditu. Amaitzeko, esan du jarduketa horiek ez dutela zerikusirik kargua hartzean adierazi zituen gauzekin, talde guztien arteko akordioak lortzearen aldeko jarrerari dagokionez. Alkateak arlo honetan izandako jarduketa alde bakarrekoa, harroa eta diktatoriala izan dela dio, eta ez duela adostasuna errazten.

Mozioa bozkatu eta horren emaitza hauxe izan da: aldeko 12 boto (PSE-EE eta PP), aurkako 10 boto (PNV) eta EBren abstentzioa.

Hortaz, akordio hauxe hartu zen gehiengoz:

"Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak,

**110º.- MOCIÓN DE URGENCIA DEL GRUPO SOCIALISTA S/ANULACIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEA Y EL AYUNTAMIENTO DE GETXO, DEJANDO SIN EFECTO EL DECRETO 3145/2008 DE 6.6.08.**

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Jesús Toca manifiesta que el grupo Popular apoyará la Moción en coherencia con las actuaciones y manifestaciones que han tenido hasta la fecha sobre estas cuestiones. Insiste en que el Alcalde de forma unilateral va a realizar un acto de agravio al resto de la corporación, lo que no le parece justo, y así también va a agraviar a la ciudadanía a la que la corporación representa. Finaliza manifestando que estos actos son un flaco favor a las palabras que manifestó en la toma de posición de buscar puntos de encuentro entre todos los grupos. Califica la acción de Alcalde en este tema de unilateral, prepotente y dictatorial, actuaciones que no facilitan la búsqueda de encuentro.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 12 votos a favor del PSE-EE y PP, 10 en contra del PNV y 1 abstención de EB.

En consecuencia, por mayoría, se acordó:

"El Pleno del Ayuntamiento de Getxo

07.12.28an, gehiengo osoz erabaki zuen Getxoko Udalaren eta Udalbide Elkarlan Elkartearen arteko hitzarmena ezeztatzea eta ondore betearazlerik gabe uztea, baita 30.000 euroko diru-laguntza ez ordaintzea ere.

de fecha 28.12.07, aprobó por mayoría absoluta anular y dejar sin efecto ejecutorio el convenio entre el Ayuntamiento de Getxo y la Asociación Udalbide Elkarlan Elkartea, así como el no abono de la subvención de 30.000 euros.

Alkate jaunak, Osoko Bilkuraren akordio honi kasurik egin gabe, 3145/2008 Dekretua eman zuen ekainaren 6an; horren bidez, 30.000 euroko kreditu gehigarria onetsi zen, "Udalbide Elkarlan Elkartearen eta Getxoko Udalaren arteko hitzarmena" deritzonari aurre egiteko.

El Sr. Alcalde haciendo caso miso de este acuerdo plenario dictó el pasado 6 de junio el Decreto nº 3145/2008, por el que aprobaba un crédito adicional de 30.000 euros para hacer frente al "Convenio a suscribir entre Udalbide Elkarlan Elkartea y el Ayuntamiento de Getxo".

Kontuan hartuta, hitzarmen horren eta bertarako diru-laguntzaren bidez, Udalbiltza izeneko proiektu politikoa garatzen ari dela eta horren helburua aldaketa politiko alderdikoi abertzaleari lotutako programa errebindikatzea dela.

Considerando que a través de ese convenio y de esa subvención se está desarrollando el proyecto político llamado Udalbiltza, cuyo objetivo es reivindicar un programa de transformación política partidista nacionalista.

Kontuan hartuta udalerriz gaindiko erakundeetan (adibidez, elkarte abertzale hori) parte hartzeko edo horietarako laguntza emateko eskumena Osoko Bilkurak duela, 7/1985 TAOALko 22.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera; beraz, Udaleko Alderdi Sozialistak honako akordio hau hartzea eskatu dio Osoko Bilkurari:

Considerando que las competencias de colaboración o participación en organismo supramunicipales como es esta Asociación nacionalista es competencia del Pleno según la redacción dada en el artículo 22.2.b) de la Ley 7/1985, LRBRL, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno que adopte el siguiente acuerdo:

MOZIOA

MOCIÓN

1.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak lankidetza-akordiorik ez sinatzea erabaki du, eta, halakorik egonez gero, Getxoko Udalaren eta Udalbide Elkarlan Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena ondore barik uztea, baita 30.000 euroko diru-laguntza ez ordaintzea ere.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda no suscribir ningún acuerdo de colaboración y, en su caso, si lo hubiera, anular y dejar sin efecto el Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Getxo y la Asociación Udalbide Elkarlan Elkartea, así como el no abono de la subvención de 30.000 euros.

2.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak erabakitakoaren arabera, 30.000 euroak Udalari laguntzen dioten boluntario-elkarteen artean banatuko dira".

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda que los 30.000 euros sean abonados entre las distintas asociaciones de voluntariado que colaboran con el Ayuntamiento".

**GALDE-ESKEAK**

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Iñaki Urkizak Bizkaiko Foru Aldundiari Unbeko saihesbideko obrak azkartzeko eskabidea egiteko eskatu dio alkateari, La Avanzadatik dabilen trafiko handia lehenbailehen arintzeko, berori baita Eskualdeak Bilborantz duen irteera bakarra.

Iñaki Urkiza pide al Alcalde que incida ante la Diputación Foral de Bizkaia para que se agilicen las obras del corredor de Umbe, a fin de aliviar cuanto antes el intenso tráfico que pasa por La Avanzada, al ser la única salida de la Comarca hacia Bilbao.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du egun honetako arratsaldeko ordu biak eta berrogeita hamar minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las catorce horas y cincuenta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.